

GOBERNU BATZARRA

2015. 09. 14

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren hamalauan goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-LAUTABI SUSTAPENAK, S.L.U.REN ESKAERA. Obra baimenaren eta EIOZren ordainketa zatikatzea(43.848,63 euro).

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

1

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

4.-25/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko irailaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-LAUTABI SUSTAPENAK, S.L.U.REN ESKAERA. Obra baimenaren eta EIOZren ordainketa zatikatzea(43.848,63 euro).

“23. Usabal Industrialdea 2” esparruan Industriako eta Hirugarren sektoreko eraikin bat egiteko obra lizentzia eskatu zuen Lautabi Sustapenak, S.L.U., enpresak 2014ko ekainaren 19an.

2015eko martxoaren 12an, 2015/418 Alkatetza Dekretuaren bidez, aipatutako obra lizentzia eman zitzaion. Baimenaren ondorioz, EIOZ eta obra baimenaren tasa likidatu zitzaizkion. Kopurua denera 43.848,63 euro dira.

Agustin Arandia Tolosak, Lautabi Sustapenak, S.L.U., enpresaren izenean, abuztuaren 14an ordainketa 3 zatitan banatzea eskatu du:

- 60 egunetara %30: 13.154,59 euro
- 120 egunetara %35. 15.347,02 euro
- 180 egunetara % 35: 15.347,02 euro

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 30.000 eta 100.000 euro bitarteko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko ondorengo baldintzak bete behar direla dio:

- gehienezko epea Gobernu Batzordeak erabakiko duela dio. 12.000-30.000 euro bitarteko zorrei 2 urtetako epea ematen bazaie, kasu honetan 180 egun ematea onargarria izan daiteke.
- % 20 aurreratu behar dela
- banku bermea aurkeztu behar duela. Baina, 2010ko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulu berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretako zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke. Kasu honetan, baldintzak betetzen dira, ondorioz, ez da derrigorrezkoa banku bermea aurkeztea.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Hau dena kontutan harturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Zorraren frakzionamendua onartzea ondorengo baldintzetan:

- a.- Kopuru osoaren %20eko aurrerakina: 8.769,73 euro
- b.- %10 60 egunetara
- c.- %35 120 egunetara
- d.- %35 180 egunetara

BIGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz, berandutze interesak kobratzea, banku bermea

aurkeztu gabe.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

3.- I.L.A.. Gainbalioaren %95ko hobaria.

2014eko uztailaren 27an, A. G. M. hil zen. 2015eko maiatzaren 6an herentziaren dokumentua aurkeztu zuten udaletxean.

Tolosako udaleko Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalak, 10. artikuluan honakoa dio:

“1.-Lurren transmisioan eta jabetza mugatzen duten gozamenezko eskubide errealen eskualdatze edo eraketan, heriotzagatik irabaziz egindakoetan, kuota osoaren % 95eko hobaria izango dute ezkontideek, izatezko bikoteek, lehen graduko oinordeko zuzenenek eta adoptatuek, baldin eta eskualdatutako ondasuna edo eskubidea oinordeko horietako baten baten ohiko bizilekuari badagokio, bere eranskin eta guzti.

2.- Hobaria ez da aplikatuko baldin eta ez bada betetzen dagokion deklarazioa moduz eta epeaz aurkezteko obligazioa.”

12. artikulua zera dio:

“1. Hurrengo lerroetan adierazitako epeetan aurkeztu beharko da aitorpena. Epea, zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko da.

a) Bizien arteko ekintzetan, epea 30 lanegunekoa izango da.

b) Heriotzagatiko egintzetan, epea sei hilabetekoa izango da. Subjektu pasiboek hala eskaturik urtebeteraino luzatu ahal izango da aipameneko epea.”

Kasu honetan, I. L. A.ek heriotzagatik irabaziz jaso du bere ohiko bizilekua. Baina, herentziaren eskritura ez du 6 hilabeteetan ekarri, urtebeteko epean baizik. Hala ere, eta ikusita kasu honetan dauden berezitasunak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskaria onartzea eta hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantzan (12 eta 13 artikulua) aurreikusitako hobaria aplikatzea eskatzaileari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

4- 25/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzailtzak **25/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **290.190,65** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **25/2015** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA